

Memoria gorde,
oraina bizi,
etorkizuna eraiki,
izan Kronikalari!



■ HERNANI ZINEA

'La espía roja' helduentzat, gaur

Helduentzako zine-saioa besterik ez dute jarri asteburu honetan, eta halaxe izango da gaur eta bihar ere. *La espía roja* pelikula ikusi ahal izango da egunotan. Gaur, arratsaldeko 19:30etan jarriko dute; eta bihar, aldiz, arratsaldeko 16:30etan. Bihar, ohi bezala, ikuslearen eguna izango da. ■

■ URUMEA HAUTESKUNDEAK

21.264 herritar bozkatzera deituak, Urumean

Zita hirukoitza izango da, oro har, Urumea bailaran: udal ordezkariak, Gipuzkoako Batzar Nagusikoak edo Nafarroako Parlamentukoak, eta Europakoak hautatu beharko dituzte gaur herritarrek. Ereñotzuarrek, bat gehiago; Auzo Alkateari ere, botoa eman beharko diote.



2019an zehar, bigarren aldía da herritarrek botoa ematera deitzen dituztena.

HILABETE besterik ez da pasa herritarrek azkenekoz bozkatu zutenetik. Apirilaren 28an izan zen hori; Espainiako Kongresu eta Senaturako eman zuten botoa. Orain, urteko bigarren aukera izango dute herritarrek, haien ordezkariak hautatzeko.

Eta ez da nolana hikoia izango; izan ere, hiru hautesontzi bete beharko dituzte: Udaletakoa; Batzar Nagusietakoa, Hernanin, Astigarragan eta Ereñotzun, eta Nafarroako Parlamentukoak, Arano eta Goizuetan; eta Europako Parlamentukoak. Ereñotzun beste bat ere izango dute: Auzo Alkatezarena.

Eskubide hori gauzatzera deituta daude, hain zuzen, 21.264 herritar: 15.749 hernalar (tartean, 478 ereñotzuar), 4.827 astigartar, 587 goizuetar, eta 101 aranoar.

Hernalarrek zazpi hautesleku izango dituzte, herrian zehar banatuta; horietan,

denera, 22 mahai izango dira. Ereñotzuarrek Auzo Etxean emango dute botoa, mahai bakarrean.

Mahai bakarra izango dute, baita ere, aranoar eta goizuetarrek. Aranon, udaletxeko batzar aretoan jarriko dute bozkatzeko lekua; eta Goizuetan, aldiz, eskolan.

Herri Eskolara joan beharko dute, baita ere, astigartarrek. Bertan, sei mahai jarriko dituzte, aurreko hauteskundeetan bezalaxe.

Hautagai bakarra, Ereñotzu, Arano eta Goizuetan

Alkategaiei dagokienez, bost aukera izango dituzte hernalarrek: Xabier Lertxundi (EH Bildu); Andoni Amonarraiz (EAJ-PNV); Jaione Aristregi (Elkarrekin Podemos-Orain Hernani!); Ricardo Crespo (PSE-EE); eta Cristobal Carre-

tero (PP). Gogorazi behar da, 20.000 biztanleko langa pasata, 17 zinegotzi izatetik 21era pasako dela Hernaniko Udala.

Bat gutxiago, lau zerrenden artean hautatu beharko dute astigartarrek: Xabier Urdangarin (EH Bildu), Zorione Etxezarraga (EAJ-PNV), Mikel Duran (PSE-EE), eta Jacobo Caparros (PP).

Hautagai bakarraren artean erabaki beharko dute Arano eta Goizuetakoak. Aranon, Joxan Ruiz (Herriz Aierriz) da hautagaia; eta Goizuetan, Unai Miranda (EH Bildu).

Ereñotzuko Auzo Alkatezarako ere, hautagai bakarra izan da: Unai Erroitzenea (Ereñotzu Ekinez).

Gipuzkoako Batzar Nagusien kasuan, 6 hautagaitzen artean erabaki beharko da; Nafarroako Parlamenturako, 11; eta Europako Parlamenturako, aldiz, 32. ■

HAUTESKUNDE-MAHAIK

HERNANI

- Laubidieta Ikastola: 10A-10B ETA 15U sekzioak.
- Elizatxo Ikastola: 7A-7B eta 12U sekzioak.
- Larramendi kalea: 6U sekzioa.
- Biteri kultur etxea: 1U, 2A-2B, 3U ETA 11U sekzioak.
- Haur Eskola: 13A-13B, 14U eta 16A-16B sekzioak.
- Beterri (lehen Gabriel Zelaia ikastola): 4A-4B eta 5A-5B sekzioak.
- Udai eraikina (Zikuñaga bailara): 8U sekzioa.

EREÑOTZU

Ereñotzuko Auzo Udala: 9U sekzioa.

ASTIGARRAGA

Astigarragako Herri Eskola (eraikin berria): 6 mahai.

ARANO

Udaletxeko batzar aretoa: mahai bakarra.

GOIZUETA

Eskolan: mahai bakarra.

■ ARANO-GOIZUETA

San Migelen irudia gaur, Arano eta Goizuetan

Urtero bezala, beste behin, Nafarroa zeharkatzen ari da Aralarko San Migelen irudia, martxoaren erdialdetik, eta Arano eta Goizuetara iritsiko da gaur. Eguerdiko 12:30ak aldera iritsiko da Aranora, eta handik, Goizuetarako bidea hartuko du. Bertan izango da, gutxi gorabehera, arratsaldeko 18:30ak aldera. ■

■ ASTIGARRAGA ELIZA

Lehenengo jaunartzeak, gaur

Maiatzeko azkeneko igandea izanda, Lehenengo Jaunartzerako zita jarri du Astigarragako elizbarrutiak gaurko. Denera, hamasei gaztek egingo dute. Eguerdiko 12:00etan daukate zita gaztetxoek eta haien familiek, Andre Maria elizan. ■

■ HERNANI ELUR TXORRI

Izenematea, gaur arte

Leitzara egingo dute ibilaldia aurten ere Elur Txorriko kideek ekainaren 2an, gaur zortzi. Haiekin joan nahi duenak, gaur arte izango du aukera, izena emateko. Elur Txori elkartearen bertan dagoen zerrendan apuntatu behar da. ■



GAUR Antzeko eguraldia izango da gaur. Zerua lainotuta egongo da, eta tarteka, euria egingo du, batez ere goizean eta eguerdi partean. Arratsalde bukaerarako atertzera egingo du. Tenperatura maximoak antzekoak izango dira. **Min.11° / Max.17°**

BIHAR Euriak atsedenaldia hartuko du goizean. Dena den, zeruak lainotuta jarraituko du, eta arratsaldeak aurera egin ahala, fronte baten ondorioz, euritara joko du. Tenperatura zerbobait igoko da. **Min.12° / Max.19°**



TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037 - 948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOIA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230 - 699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622 **AUTOBUSAK:** **Garayar:** 943 556658 **Areizaga:** 943 452708 **Korreoa Goizueta-Hernani:** 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** **TENA ASTIGARRAGA** Nagusia, 16 **943 543718** **Gauz:** **Aldabe** Perkaitezgi, 8 (Antziola, Hernani) **943 336022** **Goizueta:** Nagusia 64 **948 514353**



HERNANI TILOS 7 PASA

Final laurdenak bihartik, Tilos 7 Pasaren azken txanpan

Bihar hasi eta ostegunera bitarte jokatuko dituzte fase honetako partiduak hiru mailetan dabiltzanek. Hurrengo astean izango dira finalerdiak.

AZKEN txanpan sartu da Tilos 7 Pasa txapelketa herrikoia. Bihartik aurrera jokatuko dituzte final laurdenetako partiduak hiru mailerako jokalariek, astelehenetik ostegunera, 18:00etatik aurrera, Tilosetako frontoian.

Finala, gero eta gertuago

Aste honetako partiduen emaitzekin jakingo dute nork jokatuko dituzten hurrengo asteko finalerdiak. Antolatzaileek dagoeneko jakinarazi dute ekainaren 8an izango dela final haundia. ||

BIHAR, astelehena

18:00, Lujanbio-Cisneros/Flores-Bela (maila herrikoia)
18:45, Arregi-Luixa/Elejalde-Gastesi (1. maila)
19:30, Joxu-Alex/Ansa-Arozena (2. maila)
20:15, Goia-Zurutuza/Irazustabarrena-Loitegi (2. maila)

ETZI, asteartea

18:00, Zabala-Unda/Beristain-Arteaga (1. maila)
18:45, Pagola-Pichel/Garmendia-Elosegi (maila herrikoia)
19:30, Salegi-Juarez/Iraola-Karim (1. maila)

ETZIDAMU, asteazkena

18:00, Aiestaran-Aiestaran/Tejedor-Urdalleta (maila herrikoia)
18:45, Ruiz-Urdanpilleta/Ramos-Zubimendi (1. maila)
19:30, Olazabal-Legarreta/Oiaga-Zubeldia (2. maila)

Osteguna

18:00, Arregi-Urreaga/Irazustabarrena-Loitegi eta Goia-Zurutuzaren arteko irabazlea
18:45, Gereñu-Daguerre/Aroztegi-Berebide (1. maila)
19:30, Bidegain-Izostegi/Perez-Errazkin (maila herrikoia)

HERNANI TXALAPARTA FESTA



Saio libreerako tartea izan zuten atzo, Atsegindegin.

Ttan ttakun hotsak herrian zehar, 33garrenez

Eguraldiari bizkarra emanda, Txalaparta Festak ez zuen hutsik egin aurtien ere. 33garren urtez, musikarien, eta bereziki, txalaparta-joleen topaleku bihurtu zen Hernani, eta ttan ttakun hotsez josi zuen herria ostiral arratsaldean hasi eta larunbat gaualdara arte. ||

<p>GIRO EDERRA ETOR ZAITEZ ZAPA KALEA 8 943 33 15 06</p>	<p>XXXV. MUS TXAPELKETA</p> <p>MAIATZAK astelehena 27</p> <p>MAXI - MIKEL / URKO - KEPA TXELA - EUKEN / MANOLO - JESUS JOXE - KUJE / BORJA - MIKEL ANDER - ARKAITZ / AIATZ - EKHI</p>	<p>32 BIKOTE OSATZEKO</p> <p>MAIATZAK asteazkena 29</p> <p>JUAN - TARSÍ / IÑIGO - JOSETXO ESTEBAN - JOXIAN / TUTU - JULIAN KOLDO - PABLO / URBIETA - LOIDI JAVI - TXOMIN / JULIO - MANTXA</p>	
	<p>MAIATZAK asteartea 28</p> <p>JOXE RAMON - PAKO / JUAN MARI - MAMEL RICAR - JOXE LEON / NIÑO - PASTE BITXO - ZEZI / TXEMA - MAGGI TXEMA - PLATANITO / ANDONI - JUANMA</p>	<p>MAIATZAK osteguna 30</p> <p>PEPE - PIKABEA / BIXENTE - JOXE AXIER - KOLDO / FELIX - TOMAS JONKAR - JOSEBA / FERNANDO - VIXENTE FELIX - JAVI / YANYO - AITOR</p>	

HERNANI URUMEA IKASTOLA

Ikastolako jaialdia gaur, Urumeak

Goizeko 11:00etan hasita ondo pasatzeko aukera izango dute gaztetxo nahiz helduek.

IKASTURTE bukaera iristen ari da ikasleentzat, eta hori ospatzeko egiten dituzten jaialdisortari emango diote hasiera gaur Urumea Ikastolako haur, irakasle eta gurasoek. Goizeko 11:00etan hasita izango da festa, eta arratsaldera arte luzatuko da.

XX. mendea musika eta dantzekin emanaldia, hasteko

Ikasleen emanaldiarekin hasiko da festa, ohi bezala. Aurtengoan, XX. mendea: musika eta dantzak gaiaren bueltan antolatu dute ikuskizuna. Ondoren, eguerdiko 12:00e-

tatik 13:00etara Txoborro ma-goak patioan eskainiko du saioa. Eta ordu horretan bertan irekiko dute ikasleek egindako lanen erakusketa, gimnasioan; eguerdiko 13:15ak arte ikusi ahal izango da.

Eguerdiko 14:00etan bazkalduko dute. Piknik formatuan izango da, hau da, familia bakoitza bere otorduz arduratuko da.

Bazkalostean, arratsaldeko 15:00etatik aurrera, puzgarriak jarriko dituzte txiki-entzatzat. Eta 17:00etatik 19:00etara, DJ Mikelek giroa du festaren bukaera, gazte nahiz helduentzat. ||

ASTIGARRAGA JAI BATZORDEA

Santio Jaiak antolatzeko, aurreneko zitak

Santio Jaietarako gero eta gutxiago falta da, eta hori antolatzen hasteko, aurreneko bi bilerak deitu ditu Astigarragako Udalak. Ostegunean izango da aurrenekoa, eguerdiko 14:30etan, kultur etxeko areto nagusian. Bigarreneko zita ere zehaztu dute; ekainaren 3an egingo dute, 19:00etan, udaletxeko batzar aretoan. ||

URUMEA ERREKA

Erreka garbitzeko zita, larunbatean

Gozatu, zaindu, elkarbanatu! izenburupean, Urumea erreka garbitzeko zita jarri dute larunbaterako, ekainaren 1erako. Auzolanean egingo dute, Abañon. Goizeko 11:00etan elkartuko dira bertan, eta lanean aritu ondoren, Aranon bazkalduko dute elkarrekin, norberak etxetik ekarritakoa. Arratsaldean, talde jolasak egingo dituzte bertan. Joateko asmoa daukanak, NAN zenbakia bidali beharko du maiatzaren 30a baino lehen: jalkikulturelkarrea@gmail.com. ||

HERNANI SAN JOAN KONPARTSA

San Joanei buruz, bilera

San Joanak gertu daudela-eta, bilera orokorra deitu du San Joan Konpartsak asteazkeneko. 19:00etan izango da, Biterin. Bilerara deitu dituzte desfilean ateratzen direnak eta atera nahi dutenak. ||

IRAGARKI MERKEAK

Hernaniko Etxeberri auzoan harategia duen janari denda bat alokatzen edo saltzen da jubilaria dela eta. **Interesatuak Deitu: 689 290 923**

Lokala alokairuan, 1go pisuan. 17m karratuko, eta komunarekin. Ofizina baterako egokia. **Deitu: 943 27 78 51**

LANDANET enpresak KOMERTZIALAK behar ditu. Baldintza ezin hobek: lan-kontratu, soldata finkoa, komisio altuak hilerio eta formazioa enpresaren kontu. **Bidali cv info@landanet.net edo deitu 943318606.**

Errioxako Alesanko herrian apartamentu bat salgai: 2 logela, sukalde-egongela eta komuna, dena kanpoaldean eta altzariekin. **Deitu: 676 402 750**

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**